

MUS TXAPELKETA ANTOLATZEKO EGIN BEHARREKOA

ANTOLAKUNTZArekin HARREMANETAN JARRI

Zonaldeko arduradunarekin harremanetan jarri. Berak jarriko ditu zure eskura mus txapelketa antolatzeako behar dituzun bitartekoak:

- **INFORMAZIO FITXA:** *mugikor edo webgunetik bideratu dezakezue informazio guztia.*
 - o ehmus.eus/kanporaketak kanporaketa noiz egingo den jakinarazteko
 - o ehmus.eus/emaitzak herriko emaitzak zein izan diren ikusteko
- **KARTELA:** Euskal Herriko Mus Txapelketa iragartzeko.
- **ZIRKULARRA eta ERANSKINA:** Esku artean duzun txostena eta informazio-eranskina.
- **Kontaktua:**
 - o Zure zonaldeko koordinatzailearen telefonoa eta emaila.
 - o Harremanetarako e-posta orokorra: ldazkaritza@ehmus.eus

HERRIKO KANPORAKETA ANTOLATZEKO BEHARREZKO AZPIEGITURA

LEKUA: Toki txukun bat lortzea komeni da. Muserako egokia dena, mahaiak e.a. dituen elkarte edota taberna handia izan liteke. Tokian musean aritzeko ohitura izatea ere garrantzitsua da, ahalik eta modu naturalenean antolatu behar baitugu herriz herriko kanporaketa.

LANABESAK: Tapeteak, tantoak eta kartak izango dira lanabes garrantzitsuenak. Ez ahaztu handik edo hemendik eskuratzea!

SARIAK: Herrietan laguntzaileak bilatzea gomendatzen da herriko kanporaketan sari pizgarri batzuk eskaini daitezen. Txapelketako sari guztiak ehmus.eus/gr/sariak atalean aurkituko dituzue.

ONDOREN EMAN BEHARREKO PAUSOAK

EGUNA FINKATU: Herriko Kanporaketa egiteko azken eguna 2026ko otsailaren 22a izango da.

EGUNA eta ORDUA: Garrantzitsua da kontuan izatea herrian edo auzoan antolatzen diren beste ekimen edo egitasmoekin uztargarri egitea. Galdetu ea beste txapelketa edo ikuskizunekin tronpatu ez gaitezen.

ANTOLAKUNTZARI JAKINARAZI: Garrantzi handia izango du propaganda egiteari begira webgunean zure herriko datuak txukun agertzea. Webgunetik zonaldeko komunikabideetara mezuak bidaltzen saiatuko gara eta horretarako datuak behar ditugu. **Data eta ordua finkatu bezain laster bidali webgunetik ehmus.eus/kanporaketak, emailaz ldazkaritza@ehmus.eus** helbidera edo whatsapp bidez (0034) 644 228 817 zenbakira eta jakinarazi zonaldeko koordinatzaileari.

PROPAGANDA EGIN:

INFORMAZIO GUZTIA www.ehmus.eus helbidean bilduko dugu, baita zirkular honetan ere. Beraz, ez duzu bururik hautsi behar ezer asmatzen.

KARTELAK eta EUSKARRIAK Kartel orokorrak zirkular honekin iritsiko zaizkizu. Kartel horietan zure herrian non eta noiz izango den zehaztu beharko duzu. Webguneko propaganda atalean beste bitarteko batzuk ere izango dituzu eskura.

KANPORAKETA EGUNEAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

JARRAIPEN-FITXA: Bete behar da kanporaketa egiten den egunean (ondoren webgunean sartu behar dira datuak ehmus.eus/emaitzak helbidean) eta zonaldeko koordinatzaileari hurrengo egunean bidali behar zaio edo emailaz idazkaritza@ehmus.eus helbidera. Honekin batera **ARGAZKIAK atera eta bidaltzea** eskertuko genizueke: bikote irabazlea, giroa, partaideak, kronikatxoa... guztia webgunean argitaratuko dugu. **Gogoratu argazkiak eta bideoak (0034) 644 228 817 telefonora ere bidali ditzakezuela whatxapez nahiz Telegramenez baina ez ahaztu herria eta herrialdea jartzeaz!**

IZEN EMATEA: Bikote bakoitzak 20 euro ordainduko ditu Euskal Herriko Mus Txapelketan parte hartzeko.

DATA eta EPEAK: Zirkularrarekin batera izango duzuen eranskinean aurkituko dituzue data guztiak.

- Herrietako kanporaketak burutzeko epea.
- Herrialdeko kanporaketak, noiz, non eta zein ordutan izango diren.
- Euskal Herriko Finala non, noiz eta zein ordutan ospatuko den.

DIRU SARERA: Kanporaketa amaitutakoan, (edo hurrengo egunean) Euskadiko Kutxa (Caja Laboral) 3035 0155 36 1550047044 kontu korrontean sartu behar da dirua. **Bikote bakoitzeko 20 euro sartu beharko dira. ADI! Diru-sarrera egitean ondorengo KONTZEPTUarekin egin beharko da:**

- Eredua: Herrialdea + herria + bikote kopurua + lekua
- Adibidez: NA + etxarri + 20 + zapatero

ZENBAT SAILKATUKO DIRA HERRIALDEKO FINALERA? Herrialde bakoitzeko antolakuntzak sailkatu kopurua orekatzeko eskubidea eta betebeharra izango du. Herrialde edo herri bakoitzari dagokion bikote-partaidetza gaintzen denean, herrialde bakoitzeko antolakuntzak herri nahiz eskualde mailako kanporaketak antolatzeke ahalmena izango du, herrialde mailako ordezkariak orekatzeko helburuarekin.

Parte hartzean oinarrituriko ordezkariak joango da herrialdeko kanporaketara:

- Herriko mus kanporaketa onartzeko **GUTXIENEZ LAU BIKOTEK parte hartu behar dute.**
- **4 bikotetik - 10 bikote arte** : bikote **bakarra** herrialdera.
- **11 bikotetik - 18 bikote artean**: **bi** bikote herrialdera.
- **19 bikotetik - 25 bikote artean**: **hiru** bikote herrialdera.
- **26 bikotetik - 31 bitartera**: **lau** bikote herrialdera.
- **32 bikotetik - 38 bitartera**: **bost** bikote herrialdera.
- **39 bikotetik - 45 bitartera**: **sei** bikote herrialdera.
- **Ordezko bikote baten** kontaktua ere bidali beharko da badaezpada ere.

MUS TXAPELKETAKO ARAUAK: Araudia orokorra landuta dago eta eskuragarri duzue www.ehmus.eus webgunean. Hala ere hona **herrietarako zenbait aurrerapen**:

- Herri mailan, 4 edo 8 erregetara jokatu ahal izango da, ohiturak agindu bezala.
- Herrialdeko kanporaketetan 4 erregetara jokatu da.
- Euskal Herriko Mus Txapelketaren finalean 4 erregetara jokatu da.
- Partida bakoitza 8 hamarrekotako hiru jokoz (ustelez) osatua dago. Hala ere, 6 hamarrekotara edo bi jokotara izatea ere erabaki dezake antolakuntzak.
- Keinu berezirik ez da onartuko, araudian daudenak bakarrik. Araudia denen eskura izango da mus leku bakoitzean baita www.ehmus.eus webgunean ere.
- Hogeita hamaika erreala edo "31 real" delakoa ez da kontuan izango.
- Aurkariak ulertzen ez duten hizkuntzarik erabiltzea ez da onartzen.
- Bestelako edozein zalantza argitzea bertako arduradunen esku gelditzen da.



2025eko irailaren 29an eguneratua.

